



EUSKAL KONTSUMITZAILEEN KONFIANTZA

2020ko laugarren hiruhilekoa



LABORAL
kutxa

AURKIBIDEA: EDUKIAK ETA EMAITZAK

Ziurgabetasunak "normaltasunera itzultzea" baldintzatzen du.....	3
Euskal Kontsumitzailearen Konfiantzaren bilakaera	7
Euskal Kontsumitzailearen Konfiantzaren Osagarriak	11
Euskal Kontsumitzailearen erosketa-erabakiak.....	17
Eranskina – Aurkibideak	23
Eranskina – Metodologia	27
Fitxa Teknikoa	30

ZIURGABETASUNAK "NORMALTASUNERA ITZULTZEA" BALDINTZATZEN DU

- covid-19aren "bigarren olatuaren" eraginak muga berriak ekarri ditu
- pandemiaren gaineko "kontrolik ezaren" sentsazioak kalte egin dio konfiantzari
- erregistratutako geldialdi ekonomikoa geldotu egin da




a | covid-19aren “bigarren olatuaren” eraginak muga berriak ekarri ditu

Covid-19ak eragindako pandemiaren eraginari eta kontrolari dagokienez, udazkeneko hiruhilekoaren balantzeak bertan behera utzi ditu aurreikuspen baikorrenak. Positiboen tasak goranzko joera argia izan du EAEn inguruko herrialdeetan, baina azaroaren itxieran tasa apur bat apaldu da Italian, Frantzia, Erresuma Batua eta Espainian; ez da hala gertatu Alemanian, baina positiboen tasa baxuagoa izan da bertan.

Testuinguru honetan, udazkenak bi emaitza garrantzitsu ekarri ditu. Batetik, ikasgeletara itzultzearekin asmatu egin dute –batez ere, ikasle kopurua txikia den kasuetan–, ez baitu kutsatzeak areagotzea eragin. Eta, bestetik, pertsonen jardura “sozialenetik” eratorritako kutsatzeen hazkundera geratzeko muga berriak ezarri izana jardura batzuetan –nagusiki ostalaritzan eta funtsezkoa ez den merkataritza-jardueran– eta pertsonen mugikortasunean (ezaugarri ezberdinetako itxiera perimetralak).

Emaitza positiboak egindako testen ganean, ratioa (%)



b | pandemiaren gaineko “kontrolik ezaren” sentsazioak kalte egin dio konfiantzari

Udazkenean pandemiak berriro ere indarra hartu du autonomia-erkidego guztietan. Irailetik azarora egindako testen guztizkoaren gaineko positibotasun-tasak gora egin dueta OMEk gomendatutako % 5eko muga gainditu du erkidego guztietan, Kanarietan izan ezik.

Eraitza horiek justifikatu egin dute kontentzio-neurri orokorrak hartu izana. Kontentzio-neurriek areagotu egin dute ziurgabetasun egoera, eta, ondorioz, EAEko familien konfiantza mailak behera egin du. Balio ezkorrak izan ditu konfiantzak mailak (-33), 2008ko krisian erregistratutako balioen antzekoak (II. hiruhilekoan -9, -33). Hortaz, covid-19aren krisian konfiantza mailak (ondoan ondoko hiru hiruhilekotan) 2008ko krisian adina egin du behera, dagoeneko.

Txertaketa-kanpainen inguruko berri baikorrek ez dute eraginik izan konfiantza mailaren adierazleetan, horiek balio benetan ezkorrek erakusten baitituzte.

— Eraitza positiboak egindako — testen gainean (%)

	09/01 eta 09/07 artean	11/03 eta 11/09 artean
Andaluzia	11,1	19,2
Aragoi	16,9	21,1
Asturias	2,6	9,5
Balearrak	13,6	7,9
Balentzia	9,8	18,2
Canariar irlak	9,9	4,5
Cantabria	10	13,5
Gazt.-Leon	11	17,9
Gazt. Mantxa	16,9	16,8
Katalunia	8,4	11,7
Extremadura	8,6	16,2
Galizia	6,7	9,2
Errioxa	7,4	15,5
Madril	19,7	8,2
Murtzia	14,3	18,1
Nafarroa	8,7	10,2
Euskadi	8,1	10,7

Iturria: Osasun-Alerta eta –Larrialdien Koordinazio Zentroa (2020/11/01)



— Kontsumitzailearen konfiantza. EAE. 2008 krisia eta 2020 krisia —

	<u>2008ko krisia</u>				<u>covid-19 krisia</u>		
	<u>III-08</u>	<u>IV-08</u>	<u>I-09</u>	<u>II-09</u>	<u>II-20</u>	<u>III-20</u>	<u>IV-20</u>
Kontsumitzailearen konfiantza adierazlea	-25	-29	-30	-33	-24	-30	-33

Iturria: FCVN (2012 arte) eta Laboral Kutxa

c | erregistratutako geldialdi ekonomikoa geldotu egin da

- Erregistratutako langabezia-tasak behera egin du: 132.436 pertsona azaroan, otsailean (covid-19aren aurretik) baino 15.197 gehiago, baina abuztuan baino 14.014 gutxiago; urteko daturik okerrena izan zen abuztukoa, 146.450 langabe.
- Afiliazioak gora egin du: 959.181 pertsona azaroan, otsailean (covid-19aren aurretik) baino 13.972 gutxiago, baina abuztuan baino 20.595 gehiago; urteko daturik okerrena izan zen abuztukoa, 938.585 afiliazio.
- Hazkunde ekonomikoaren susperraldia: BPGren bilakaera, 2020ko hirugarren hiruhilekoan, nabarmen igo da, bai Espainian (+% 16,7), bai EAEn (+% 15,5).



EUSKAL KONTSUMITZAILEAREN KONFIANTZAREN BILAKAERA

- EAEko familien konfiantza mailak jaisten jarraitzen du
- EBko eta Espainiako familietan ere, ezkortasuna
- konfiantza mailaren jaitsiera Frantziako, Alemaniako eta Erresumako familietan




1 EAEko familien konfiantza mailak jaisten jarraitzen du

EAEko familien konfiantza maila azken sei urteetako baxuena izan da 2020ko laugarren hiruhilekoan (-33 puntu), eta 2008-2013 aldiko krisian izandako antzeko balioetara itzuli da.

2020an zehar asko kaltetu da familien konfiantza maila: lehenengo (-1) eta laugarren hiruhilekoen (-33) artean, konfiantza-indizeak 32 puntu galdu ditu. Jaitsiera hori 2008an erregistratutakoa baino handiagoa izan da; urte hartan, -21eko jaitsiera gertatu zen epe berean.


Hala, 2017az geroztik EAEko familien konfiantza mailaren urteko batezbesteko balioaren joera goranzkoa bazen ere (+1, +1, -2 eta -22), 2020an hautsi egin da joera hori.



2 | EBko eta Espainiako familietan ere, ezkortasuna

Covid-19aren ondorioz sortutako pandemiak familien konfiantza mailari eragin dio, eta, orokorrean, kaltetu egin da konfiantza: EB-27n (-18) eta Estatuan (-28) familiak ezkorrek dira, eta bigarren eta hirugarren hiruhilekoan erregistratutako balioen antzekoak izan dituzte. Euskadiko familietan ere okerrera egin du konfiantzak.

EBko (-16 eta -19) eta Estatuko (-27 eta -29) familien hileko balorazioak (urrian eta azaroan) okerrera egin du. Horrek agerian uzten du aldi horretan martxan jarritako murrizketa eta muga berrien eragina. Paradoxikoki, txertoei buruzko berriek ez dute (oraindik) eragin positiborik edo hobekuntzarako eraginik izan familien konfiantza mailan.



1. IV. Lauhilabeteko datua behin behinekoa da EB-27 eta Espainiarentzako. Urria-Azaroa batez bestekoa.


3 | konfiantza mailaren jaitsiera Frantziako, Alemaniako eta Erresumako familietan

Frantziako (-16), Alemaniako (-11) eta Erresuma Batuko (-22) familien konfiantza maila oso negatiboa da (ezkortasuna); hirugarren hiruhilekoan balioek hobera egin bazuten ere, hobekuntza hura urrun geratu da.

Zentzu horretan, Euskadiko familietan bezala, konfiantza mailak okerrera egin du, hiru herrialde horietan covid-19aren positibotasun-tasak izandako igoera handiaren ondorioz. Hain zuzen ere, kasu horietan, –baita Espainian eta Euskadin ere–, OMEk gomendatutako % 5eko muga erraz gainditu dute.

Kontuan izatekoa: hiru herrialdeek mugikortasuna murrizteko neurriak, jarduerak mugatzeko neurriak (ostalaritza) eta/edo etxeratze-agindua ezarri dituzte, eta neurri horiek mantendu egin daitezke aurrerantzean ere, neurri handiagoan edo txikiagoan (urtarrilean “hirugarren olatua” arintzeko).

————— Kontsumitzailearen konfiantza. EAE eta erreferentziako herrialdeak —————



1. IV. Lauhilabeteko datua behin behinekoa da EB-27 eta Espainiarentzako. Urria-Azaroa batez bestekoa.

EUSKAL KONTSUMITZAILEAREN KONFIANTZAREN OSAGARRIAK


- ekonomia orokorraren bilakaeraren inguruko ezkortasuna
- enpleguaren gaineko igurikimenak behea jota jarraitzen du
- etxeko ekonomiari dagokion mesfidantza baxuagoa da
- eta familiaren aurrezkiaren gaineko igurikimena mantendu egin da
- tristura, hobetzen ez den eta igurikimena lausotzen duen egoeraren aurrean

4 | ekonomia orokorraren bilakaeraren inguruko ezkortasuna

2020ko laugarren hiruhilekoko datuen arabera, Euskadiko familiek jarduera ekonomikoaren ganean duten igurikimenak oso ezkorra izaten jarraitzen du (-50), eta, gainera, hirugarren hiruhilekoan baino apur bat okerragoa da (-45, -5 puntu).

Euskadiko familiek oso kezkatuta jarraitzen dute, eta, ziurrenik, bi faktorek dute eragina: orain gutxiko krisiaren esperientzia (2008-2013), hori gainditzea kosta egin zen (2014-2019), eta kutsatzeen bigarren olatu honetan hedatzen ari diren etengabeko berriak. Horiek adierazten dute 2021ean edo are 2022an berreskuratuko duela ekonomiak 2020an galdua.


Euskadiko familiek ekonomia orokorraren ganean duten igurikimena (-28, urteko batezbestekoa) oso ezkorra da. Ezkortasun maila hori pentsaezina zen covid-19a agertu aurretik, 2018ko eta 2019ko balioak (3 eta -1, hurrenez hurren) ia baikorrak baitziren.



5 | enpleguaren gaineko igurikimenak behea jota jarraitzen du

Euskadiko familiek enpleguaren gainean duten igurikimena bereziki ezkorra da (-60), eta hirugarren hiruhilekoan erregistratutako antzeko balioa izaten jarraitzen du. Izan ere, egungo egoerarekin alderatuta, datozen hamabi hilabeteetan langabeziak gora egingo duela uste dute hamar pertsonatik zazpi –asko (% 46) edo gutxi (% 33)–, eta hamar pertsonatik hiruk baino ez dute pentsatzen berdin jarraituko duela edo behera egingo duela.


Paradoxikoki, badirudi Euskadiko lan-merkatuaren bilakaeraren inguruko datuak suspertzen hasi direla: azaroan Gizarte Segurantzako afiliazioa (959.181 pertsona) eta langabezia (132.436 pertsona) okerragoak izan dira otsailean baino (973.152 eta 117.239) –covidaren aurreko azken hilabetea–, baina abuztuan (938.585 eta 146.450) baino nabarmen hobek izan dira, orduan erregistratu baitziren urteko baliorik baxuenak.



6 | etxeko ekonomiari dagokion mesfidantza baxuagoa da

Euskadiko familiek etxeko ekonomiaren gainean datozen hamabi hilabeteetarako duten igurikimena (-17) bigarren hiruhilekoan erregistratutakoaren (-15) ia berbera da. Negatiboa izan arren, aipatzekoa da ekonomia orokorraren (-50) edo langabeziaren (-60) bilakaeraren gaineko igurikimena baino askoz baikorragoa dela.

Honetan oinarritzen da indizearen emaitza: familien bi herenek berdin (% 65) edo hobeto (% 4) jarraituko dutela uste dute, eta heren batek uste du apur bat (% 25) edo askoz (% 7) okerrago egongo direla. Hau da, nolabaiteko egonkortasuna da nagusi; dena den, 2020ko etxeko ekonomiari dagokion igurikimena (-12, urteko batezbestekoa) okertu egin da aurreko urteekin alderatuta (-5, -4 eta -2, 2017an, 2018an eta 2019an).




7 | eta familiaren aurrezkiaren gaineko igurikimena mantendu egin da

Familiak etorkizunean (datozen hamabi hilabeteetan) aurrezteko izango duten gaitasunaren balorazioa jasotzen du familiaren aurrezki-igurikimena indizeak, jada aurreztutakoarekin (azken hamabi hilabeteetan) alderatuta. Hala, aurrezkiaren gaineko igurikimena balio apur bat negatiboetan mantentzen da (-5).

Balorazio horrek familia aurrezleak¹ eta zuhurrak² biltzen ditu: familiaren erdiek seguru (% 19) edo seguru asko (% 31) aurreztuko dutela adierazi dute; beste erdiek, berriz, seguru asko (% 22) edo seguru (% 28) ez dutela aurreztuko uste dute.

Balorazio hori bat dator maximo historikoak izan diren bi emaitzarekin (Espainia): urtearen bigarren hiruhilekoan, errenta erabilgarriaren gaineko aurrezki-tasa % 22ra igo zen (EIN), eta, urtarrilaren eta irailaren artean, familiaren gordailuak % 5 hazi dira, 877.474 milioi eurora iristeraino (Espainiako Bankua).



8 | tristura, hobetzen ez den eta igurikimena lausotzen duen egoeraren aurrean

2020ko laugarren hiruhilekoan sendotu egin da EAEko familien ezkortasuna, covid-19aren pandemiaren bilakaeraren ondorioz, udazkenean bigarren olatua hasi baitzen. Krisi hau azkar konpontzeari dagokionez, muga eta murrizketa berrien ondorioz pertsonen esperantza ahultzen ari da, eta errealitateaz ohartzen ari dira, 2021aren erdialdera arte osasun-larrialdiko egoera honetan bizi beharko dugula erakusten duen errealitateaz.

Ekonomia orokorraren (-50) eta enpleguaren (-60) gaineko igurikimenak ezkorrak dira, izan ere, gehiengoaren ustez egoerak okerrera egingo du egungo egoerarekin alderatuta. Bestetik, etxeko ekonomiaren (-17) eta aurrezki-gaitasunaren (-4) gaineko ingurikimenak ez dira hain negatiboak. Lau eremutatik hirutan emaitzak mantendu egin dira hirugarren hiruhilekoarekin alderatuta, eta eremuetako batean baino ez dute okerrera egin (ekonomia orokorra).

Azken finean, egoera ez dela hobetuko aurreikusten dute familiek (osasun-egoera, ekonomia, enplegua) eta berri onak (txertoak eta txertatze-planak, enpleguaren hobetze progresiboa, etab.) ez dira haien konfiantza berreskuratzeko bezain esanguratsuak izaten ari.


Familien konfiantza-indizea eta bere osagarriak. EAE

Indizea...	<u>2018</u>	<u>2019</u>	<u>2020</u>	<u>IH-20</u>	<u>IIH-20</u>	<u>IIIH-20</u>	<u>IVH-20</u>	<u>Aldea</u>
Familien konfiantza	1	-2	-22	-1	-24	-30	-33	-3
Ekonomia orokorra	3	-6	-33	-7	-32	-45	-50	-5
Etxeko ekonomia	-4	-2	-12	-1	-13	-15	-17	-2
Langabeziaren bilakaera	10	-4	-41	-4	-44	-58	-60	-2
Aurrezteko gaitasuna	-5	2	-2	7	-6	-4	-5	-1



EUSKAL KONTSUMITZAILEEN EROSKETA-ERABAKIAK

- prezioen gorakadaren gaineko igurikimena finkatzen ari dela dirudi
- erosteko unearen inguruko balorazioak negatiboa izaten jarraitzen du
- "erosketa handiak" egiteko igurikimenak negatiboa izaten jarraitzen du
- eta (ia) etxebizitza edo autoa erosteko asmorik gabe
- kontsumoa eta inbertsioa geldituta daude, egoera globalaren ondorioz




9 | prezioen gorakadaren gaineko igurikimena finkatzen ari dela dirudi

2020ko laugarren hiruhilekoan familien ia erdiek (% 45) prezioak azken hamabi hilabeteetan baino azkarrago igoko direla uste dute; bestetik, hamarretik bik prezioak motelago igoko direla uste dute (% 22), eta hamarretik hiruk (% 32) antzeko erritmoan igoko direla.

Hala, prezioen bilakaerari dagokion indizea -23 puntutan geratu da, eta okerrera egin du aurreko hiruhilekoarekin (-16) alderatuta . Hala ere, urteko batez besteko balioa (-22) 2018an eta 2019an jasotakoan antzekoa da (-23 eta -20, 2018an eta 2019an). Hau da, 2020an prezioen bilakaeraren gaineko igurikimena ez da aldatu egiaz.

EAEko familiek inflazio-gorakadaren gaineko igurikimena mantentzen dute, baina badirudi gorakada hori ez dela hezuramaitzen: KPlaren urte arteko tasa negatiboa izan da apirilaz geroztik, etengabe (-% 0,8 eta -% 0,5, Espainian eta Euskadin; urriko datua).

Zure ustez, nola haziko dira prezioak hurrengo 12 hiletan?¹ (pertsonek %a)



¹ Azken 12 hilabetei dagokienez.

10 | erosteko unearen inguruko balorazioak negatiboa izaten jarraitzen du


Oro har, nola baloratzen duzu gaur egungo unea, etxerako gaiak (altzariak, etxetresna elektrikoak, tresna elektronikoak...) erosteari dagokionean?

Familien mesfidantzaren ondorioz, erosteko unearen gaineko balorazioa negatiboa da (-13); emaitza hori hirugarren hiruhilekoko (-10) baino okerragoa izan da: uneak axola ez duen ustea da nagusi (% 54, ehuneko +12 puntu), eta behera egin du unea ona (% 16, ehuneko -8 puntu) edo txarra (% 30, ehuneko -4 puntu) dela uste dutenen multzoak.

Urteko batez besteko balioa -13 da, eta okerrera egin du 2017arekin (-2), 2018arekin (-9) eta 2019arekin (-5) alderatuta. Egia esan, azken urteetan, ekonomia eta enplegua suspertu baziren ere, adierazle honek ez zuen balio positiborik eskuratu; hortaz, egungo ziurgabetasun-agertokia faktore erabakigarria izan da adierazleak okerrera egiteko.

Erosteko unearen balioztapena¹

(pertsonek %a)



¹ Azken 12 hilabetei dagokienez


11 "erosketa handiak" egiteko igurikimenak negatiboa izaten jarraitzen du

Nolakoak uste duzu izango direla etxeke erosketak eta gastuak, adibidez, altzariak, etxetresna elektrikoak, etxeke konponketak, etab., datozen 12 hilabeteetan¹?

Bizitutako ziurgabetasuna islatzen du Euskadiko kontsumitzaileek 2020an zehar izandako jarrerak: 2020ko lehenengo eta laugarren hiruhilekoen artean, erosketa handiak egiteko igurikimenaren indizeak +3, -17, -21 eta -12 izan dira. Bilakaera horrek erakusten duenez, urtea normal hasi zen, eta hiruhilekoz hiruhileko egoera nahasten joan da covid-19aren krisiaren agerpenaren ondorioz.

Hala, familiek erosketa handiak egiteko igurikimena (-12, urteko batezbestekoa) 2015ean erregistratutako baliora (-12) itzuli da eta urrundu egin da 2016aren eta 2019aren artean lortutako hobetzetik (-10, -7, -0 eta 0, hurrenez hurren). Ekonomia orokorraren eta enpleguaren egoeraren gainean duten igurikimen negatiboaren ondorioz, familiek birpentsatu egin dituzte etxeke erosketa handien gaineko erabakiak, testuinguru argiago eta baikorrago baten zain.

— Zure ustetan, nolakoak izango dira etxerako erosketak datozen 12 hiletan¹
(pertsonek %a)



¹ Azken 12 hilabeteekin alderatuz.

12 | eta (ia) etxebizitza edo autoa erosteko asmorik gabe

EAEko familien % 1ek baino gutxiagok uste dute hurrengo urtean etxebizitzaren¹ bat erosiko dutela; aurreko hiruhilekoetako ehuneko antzekoa da. Esan daiteke egungo krisiak ia ez duela eraginik izan erabaki horretan; egiturazko joerak gailentzen dira (etxebizitzaren erosketak inoiz ez du berreskuratu 2008aren aurreko maila).

— Etxebizitza erosteko asmoa


(hurrengo hamabi hilabeteak) (pertsonek %a)



Ibilgailua erosteko asmoa dutela adierazten duten familien ehunekoa apur bat hobetu da 2020ko laugarren hiruhilekoan (% 5,8, ehuneko +1,4 puntu), baina covid-19aren eraginaren aurreko balioak baino baxuagoa da (% 6, % 5,9 eta % 7,5, 2017an, 2018an eta 2019an). Enplegua suspertzearen eta erosteko erraztasunak (laguntza publikoak) ematearen menpe egongo da emaitza hori hobetzea.

— Ibilgailua erosteko asmoa

(hurrengo hamabi hilabeteak) (pertsonek %a)



13 | kontsumoa eta inbertsioa geldituta daude, egoera globalaren ondorioz

2020ko laugarren hiruhileko honetan, EAEko familiek...

- Datozen hilabeteetan prezioak azken urtean baino gehiago igoko direla (-23) uste dute. Inflazio-gorakada.
- Erosteke unearen gaineko balorazioak negatiboa izaten jarraitzen du (-13), baina beherakada apaldu egin da urteko bigarren eta hirugarren hiruhilekoekin alderatuta.
- Erosketa handiak egiteko igurikimena apur bat hobetu da laugarren hiruhilekoan (-21etik -12ra), baina urrundu egin da azken urteetako hobekuntza-balioetatik, eta gastuaren euste-posizioetara itzuli da.
- Etxebizitza edo autoa erosteko asmoa dutela dioten familien multzoak oso urria izaten jarraitzen du, baina autoaren erosketari dagokionez, apur bat hobetu da.

Azken finean, covid-19aren intzidentziaren gorakadaren ondorioz, EAEko familien konfiantzak baxua izaten jarraitzen du. Ez da aurreikusten egoerak hobera egingo duenik (eta neguan hirugarren olatua izateko arriskuaz ohartarazi dute dagoeneko), hortaz, ziurgabetasunak eta zuhurtziak menderatzen dituzte erosketen eta inbertsioen gaineko erabakiak: hain zuzen ere, horiek erabat geldituta daude.

• Kontsumoari buruzko igurikimenen beste indize batzuk

	2018	2019	2020	I H-20	II H-20	III H-20	IV H-20	Aldea	
Prezioen bilakaeraren igurikimenak	-17	-23	-20	-17	-31	-16	-23	-6	▼
Erosteke unearen balorazioa	-9	-5	-13	-8	-22	-10	-13	-3	▼
Erosketak egiteko igurikimenak	-6	0	-12	3	-17	-21	-12	+9	▲

¹ 2014, ICC neurriaren hasiera momentua

ERANSKINA – INDIZEAK

laburpena: familien konfiantza indizea

euskal familien konfiantza indizea, ezaugarrien arabera

beste adierazleak



I laburpena: familien konfiantzaren indizea

	2019	2020	I H-20	II H-20	III H-20	IV H-20	
Kontsumitzaileen konfiantza-indizea							
• EAE	-2	-22	-1	-24	-30	-33	▼
• Estatua*	-6	-23	-10	-29	-27	-28	▶
• EB*	-6	-15	-7	-21	-16	-18	▶
○ Frantzia*	-9	-13	-8	-18	-12	-16	▼
○ Alemania*	-2	-10	-3	-16	-9	-11	▶
○ Erresuma Batua*	-10	-17	-6	-23	-17	-22	▼
Osagaiak: familien konfiantza. EAE							
• Ekonomia orokorra	-6	-33	-7	-32	-45	-50	▼
• Etxeko ekonomia	-2	-12	-1	-13	-15	-17	▶
• Langabezia	-4	-41	-4	-44	-58	-60	▶
• Aurrezkia	2	-2	7	-6	-4	-5	▶
Kontsumoari buruzko igurikimenen beste indize batzuk. EAE							
• Prezioen bilakaerari buruzko igurikimenak	-20	-22	-17	-31	-16	-23	▼
• Erosteke unearen balioztapena	-5	-13	-8	-22	-10	-13	▼
• Erosketak egiteko igurikimena	0	-12	3	-17	-21	-12	▲
Erosketa handiak. EAE.**							
• Etxebizitza	2,1	0,9	0,7	1,1	0,9	0,9	▶
• Autoa	6,4	5,3	5,6	5,6	4,4	5,8	▶

⇒ (± 2 puntuko aldea)

* I. hiruhileko datuak urtarilla-otsaila batez bestekoari dagozkio.

** Erosteke probabilitatea (asko, nahiko, gutxi)

II euskal familien konfiantza indizea, ezaugarrien arabera

	2019	2020	I H-20	II H-20	III H-20	IV H-20	
Kontsumitzaileen konfiantza-indizea							
• EAE	-2	-22	-1	-24	-30	-33	▼
Adin-mailak							
• 25 eta 39 urte bitartean	4	-17	6	-19	-21	-34	▼
• 40 eta 54 urte bitartean	-2	-22	-1	-24	-31	-33	▶
• 55 eta 64 urte bitartean	-6	-25	-6	-26	-36	-31	▲
• 65 eta 74 urte bitartean	-8	-26	-6	-28	-36	-33	▲
Lan egoera							
• Landuna (soldatapekoa/ norberaren konturakoa)	1	-19	3	-22	-26	-31	▼
• Langabea	-8	-31	-9	-24	-40	-50	▼
• Ez-aktiboa (erretiratua, etxeko langilea, ikaslea...)	-6	-25	-5	-27	-35	-31	▲
Familia-unitatearen hileko errenta							
• 1.700 €-rainokoa	-13	-32	-12	-30	-42	-45	▼
• 1.701 eta 2.800 € bitartekoa	0	-19	1	-20	-28	-31	▼
• 2.800 €-tik gorakoa	4	-14	7	-21	-19	-21	▶

⇒ (±2 puntuko aldea)

III | beste adierazleak

	IV H – 19	I H – 20	II H – 20	III H – 20	IV H – 20 _p	(azkena)
BPG	2,2	-3,2	-19,5	-7,5	--	III hir.
Familien kontsumoa	1,5	-4,8	-20,3	-8,5	--	III hir.
Afiliazioa	1,8	-1,0	-2,5	-0,4	+1,7	azaroa
Erregistratutako langabezia	0,1	5,8	17,0	2,3	-6,5	azaroa
Txikizkako merkataritzaren salmenta-indizea	-0,2	-2,7	-10,4	18,1	--	III hir.
Etxebizitzen salerosketa	-6,1	14,0	-29,9	37,4	--	III hir.
Ibilgailuen matrikulazioa	8,8	-35,6	-24,0	118,1	-26,3	urria-azaroa

1. BPG eta etxeetako kontsumoa. Ekonomiako kontuak, Eustat. Bolumen kateatuaren indizea; urtetik urterako tasa.
2. Afiliazioa. Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorra. Hileko datuen hiruhilekoko batez bestekoa; aurreko hiruhilekoarekiko aldakuntza.
3. Erregistratutako langabezia. SEPE. Hileko datuen hiruhilekoko batez bestekoa; aurreko hiruhilekoarekiko aldakuntza.
4. Txikizkako merkataritzako salmenta-indizea. Eustat. Hiruhilekoen arteko tasa.
5. Etxebizitzen salerosketa. Ondare-eskualdaketen estatistika, EIN. Hiruhilekoen arteko tasa.
6. Ibilgailuen matrikulazioa. Faconauto. Hiruhilekoen arteko tasa.

Erreferentziako datua hiruhilekoko batez bestekoa denetan, eskura dagoen azken datua (hil batekoa edo bikoa) hartzen da kontuan, azken aldakuntza kalkulatzeko.

Erreferentziako datua hiruhilekoko metatua denetan, eskura dagoen epealdiaren gainean -azken hila aurrekoarekiko, edo azken bi hilak aurreko biekiko- kalkulatu da azken aldakuntza

ERANSKINA– METODOLOGIA

kontsumitzaileen konfiantza indizea: zer da?

zer esanahi du indizearen bilakaerak?




I | Kontsumitzaileen konfiantza indizea: zer da?

Datozen hamabi hiletan izango duten bilakaerari buruz pertsonek duten iritzia laburtzen duen adierazlea da kontsumitzailearen edo familiaren konfiantza-indizea. Hona hemen adierazleok:

- 1) Ekonomia orokorraren egoera
- 2) Etxeko ekonomiaren egoera
- 3) Langabeziaren bilakaera
- 4) Etxean aurrezteko duten gaitasuna

Euskal familietako pertsonen konfiantza-indizea¹ kalkulatzeko, Europako Batzordearen metodologia (galderen diseinua eta indizeen kalkulua) erabiltzen da.



¹ Consumer Confidence Indicator, dokumentu honetan aipatzen dena familien konfiantzaren indize bezala, kontsumitzaileen iritzia jasotzeko.

II | Zer esan nahi du indizearen bilakaerak?

Konfiantza-indizea pertsonen iritziarekin osatzen da. Ekonomia orokorrak, etxeko ekonomiak, aurrezkiak eta langabeziak gaurkoaren aldean urtebete barru izango duten egoera balioztatzen dute horiek.

Bost mailatan (askoz okerragotik askoz hobegorainoko bitartean) sailkatzen da.

Osagaiak: konfiantza-indizea

Hauen indize partzialak:

- Ekonomia orokorrarena
- Etxeko ekonomiarena
- Aurrezteko gaitasunarena
- Langabeziaren bilakaerarena

- Arlo bakoitzean lortutako erantzunen tratamendu agregatua indize partzial bat da.
- Eta familien konfiantza-indizea lau indize horien (kontsumitzaileen konfiantzaren osagaien) batez besteko balioa da.

Baikortasuna



Nola interpretatzen dira lortutako emaitzak?

- Balio positiboak (100era artekoak): egoerak hobera egingo duela uste dute familia gehienek.

Ezkortasuna



- Balio negatiboak (-100era artekoak): egoerak txarrera egingo duela uste dute familia gehienek.

Fitxa teknikoa eta metodologia

Fitxa teknikoa

- Inkesta EAEko 800 laguni egin zaie.
- Azaroaren 09tik 20ra (2020ko IV. hiruhilekoa)
- Banaketa: sexua, adin-taldeak, jarduerarekiko erlazioa eta errenta-mailak.
- % 95eko konfiantza, +/- % 3ko lagin-errorea

Metodologia

Kontsumitzailearen konfiantza-indizea:

- Europako Batzordea http://ec.europa.eu/economy_finance/db_indicators/surveys/index_en.htm